



**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

103n. Zenbakia **Abendua**  
1986



**BASERRI-GIROTIK  
URI-GIRORA  
(Zornotza)**



# GARRASTATXU'KO KEPA DEUNA

Orain ogei ta amarren bat urte, mendiz-mendiko ibillera luze baten, Baranbio'tik Zeanuri'ra artekoan, Nafarrate, Odoriaga, Ipergorta eta Arraba'ko zelekada zabaletik igarota, Gorbeia mendidiko bastar guztiak ezagutzea atsegin izaten jatalako Baranbio'tik Sorkaldera igonda, ordu bat baiño len, aurkitu nintzan 579 neurkin goraka dituan muiño baten gaiñean aurkitzen dan basaleiza baten ondoan, baiña, beren inguruan iñor ez neban aurkitu eta, bera ertsirik aurkitzen zan esketiño, jarraitu neban mendia-gora, goialdian artzain bat aurkitu arte eta, artzain orren bitartez jakin neban Garrastatxu'ko Kepa deuna zala, edo berak esan eustan antzera "San Pedro de Garrastatxu".

Egun orretan basatxonu ori ikusiteko gurari bizia susmau bainuen be neure barrenean, nozbait bertara joateko asmu orregaz egon naz aurtego udara arte. Aurten bai, birriteko aldiz izan naz bertan eta, naita lenengoan ezin izan barrutik ikusi asteguna izanik ertsita aurkitzen zalako, urrengo igande baten lortu neban dana ondo ikustea.

Lenago esan dodan lez, muiño biribil baten gaiñean aurkitzen da, aldi onetan nik lenengoz ikusi nebanean baiño apaiñago, bai at'ez, kanpotik eta bai barruz. Ikusten danez Araba'ko Aldundia'ren babespean aurkitzen dalako bear ba'da. Bere aurreko aldean, Sarkaldera, lenen "aurkupe" bat dauko, estalpe lez da, urren enperantza lez 35'55 x 22'55'ko zelai-unea, 2'90 gorako orma lodiz, arrese lez zarraturik eta gure gazteluak eukiten dabezan begira-toki edo leio estutxu ta guzti Egoaldetik.

Basatxonu orren Egoaldeko aldamenean, eleiza orreri dautsola, bizileku zaar bat aurkitzen da, beren korta eta

guzti, ziurki basatxonu jablearen, "ermitañuen" etxea zana, orain jakin dogunez. Bai-ta aterpearen ondoan oraindik be, aukitzen da aintziñako labea, artoa edo ogia erreteko.

Lenengoz basatxonu orren ondolik igaro nintzanean uste neban erromaniku edo gitxienaz "gotiko" aldikoa izango zala, baiña, orain ikusi dogu ta jakin dogu, XVII gizaldian erdi-aldekoa dala eta, Garrastatxu'ko Kepa deuna lez geiago ezagutzen bada bere, bertako Goi-Zaindaria Errukizko Ama (Ntra. Sra. de La Piedad) dala. Opa-mai gaiñean erdi-erdian aurkitzen da Ama'ren irudia ta aldamentean Padua'ko Andoni, Erroka deuna eta Mariñe donea eta, ezagutzen ez dodan beste done baten irudia. Aldare edo opai-mai, obeto esanda aldare-buru goian Kepa deunaren irudi aundia, jesarrita dala, aldamentean beste irudi txiki batzuk dituala. Bai opa-maia eta bai aldare-buruak "barroko" ertikoak dira.

Erti-aldetik, ez dau garrantzi aundirik basatxonu zabal eder onek, baiña, ederto apainduta egonik eta aurkitzen dan lekuan dagolako, geien bat, ikusgarri egiten da.

Aldi onetan, muiño guztia dago ondo apainduta, lenagoko zugatzak ondo jabonda eta zugaitz barriz landaratu-ta eta, jarleku ta sukalde ta guzti. Eunen bat neurkin bera-gora arte berebillez igon leiteke Baranbio'tik asita. Goiko gaiñean edatetxetxu bat dago, barria bera, udako igande guztietan idegita. Tamalez, sarritan laiñotsu izaten da muiño ori, aurtengo udan guk ikusi genduban lez. Dana dala, Euzkadi'ko lurraldeko zati apain bat da bera, Gorbeia'ren aldamenean.

BASA-JAUN



## **GABONAK DATOZ**

### **EGUZKI-JAIK**

Egunik laburrena ta gaurik luzeena ospatzeagaz zer-ikusia dauke gabon-jaiak. Orregaitik antxiñako Olentzero'k eta illentiak ospakizun baten dabe euren irudibideko esangurea eta Olentzero bera be erre egiten da, sinistebakoen oitura okerrak erre bearrekoak dirala uste ebelako erdi-aroko kristiñauak, sorgiñak erreten ziran antzera. Oitura au be jarraigarria ete da? Nor erre ta zergaitik?

Eguzki-jai oneikaz zer-ikusia daualako, giro orretan ipiñi da urtearen azkena ta asierea be. Au ez da beti one-lan izan: Erromatarrentzat irailla-setiembre zazpigarren illea zan (septem) eta ori orrelan izateko urtearen asierea epaillean edo martian jarri eben.

### **KRISTIÑAUEN JAIK**

Barri Ona gure artera eldu baiño lenagoko jaia egun oneitan ospatzen zalako, kristiñauak be egun oneitan ipiñi eben euren jai aundi bat. Ez' Jesús Gabon-Gabeen jai zalako. Ori kondaira-arloan ez da gauza ziurra.

Sortaldean Jesus'en agerkundea ospatzen eben, eta ez gabon. Ortik etorri da ba Agerkunde-jaia edo aztien eguna, Jesus'en jaiotza bera ospatzeko.

Giro orretan sartu dira gero beste jai batzuk: Sendi Deunarena, Esteban Deuna, Ume Errubakoena, Joan Ebanjelariarena, Andra Maria Jaungookoaren Ama'rena.

### **EMOITZ-JAIK**

Gabon-giroan toki azkotan, batez be Sortalde-inguruko jakintzan, emoitzak edo opariak egiteko eguna izaten da.

Ameriketako ta Europa'ko Iparraldean Santa Klaus edo Nikola Deunarena izaten da opariak emoteko eguna.

Europa-barruan, ostera, Frantzia'n asita, emoitz edo opari ekarleari Noel edo Jaiotza esaten dautsoe eta zugaitza da beronen ezaugarri. España-aldekoak opariak ekarteko zeregin au Magoai emon dautsee, eta orretarako Erregeak izan zirala asmau dabe.

Euskaldunok onetan be berezitasuna nai izan dogulako-edo, Olentzero izendatu dogu oraintsu emoitz edo opari-ekarle.

### **OLENTZERO**

Olentzero euskaldun fedebakoa zan, ikazgiña eta basajauna Aralar-mendietan. Errezago ulertzeko, bear-ba'da, jentilla zala esan bear. Laiñoaren bidez jakin eban Kismi edo Kristo jaiotza zala eta barri ori bere lankideai emon eutsen eta oneik euren buruak il ebezan aitxetik bera amilduta. Olentzero ostera menditik jatsi eta etxerik etxe, erririk erri, joan zan Barri au zabaltzen.

Gure kulturean, etxera barri bat dakarrenari jaten emoten jako. Ortik lukainka ta arrautzatxuen oiturea. Ez da barria dakarrena bera opariak ekarten dauzana. Edestiaren aurka doa ba Olentzero opari-ekarle ipintea, baiña orrelan itzi bearko dugu, erriak bere bideak artzen dauzala, naizta sarritan jakintzaren aurkakoak izan.

Opariok egite au, gaiñera, gaurko mundu gauza-zalearen jokabidea da eta ez argi-argi ta ziur-ziur onartzekoa.

### **Gertakuntza ta ospakizuna**

Abendu-giroan gagoz ba eta abendua Kristo'ren etorrera gertatzeko sasoia da.

Gertatu gaitzean ba, Gabon-Jaiak euskal-giroan eta kristiñau-zentzunaz ospatzeko.

## ESKU-MEZA-LIBURUA

ZER-en eungarren zenbakian, zeozer idatzi nai dot Liturgitzaz. Antxinatik, biotz barru-barruan, daramadan asmo bat orain azalduko dot.

Guk, euzkaldunok, oraindiño ez daukogu erriak eskuz erabilteko Meza-liburua: ez daukogu *Esku-Meza-Liburua*.

Garrantzi aundikoa da Esku-Meza-Liburua kristau artean, bai Jaungoiko-zaletasuna, bai urko-zaletasuna zaintzeko eta berotzeko. Bertan dagoz Eleizaren otoitzik onenak, eta Jaungoikoaren itzik ederrenak, urte osoaren egun guztietarako. Orrexegaitik bear dogu liburu ori, bizkaieraz eta gipuzkoeraz. Bizkaiakoai bizkaieraz, gipuzkoai gipuzkoeraz, egin bear jake-ta.

Aldarako Meza-Liburua antolatuta dagonez, sano erreza da Esku-Meza-Liburua au gertazea baita be argitaratzea, begiratzten badautsagu bere barrukoari. Lan au asteko eta egiteko oztopo bat baiño ez dago: *diru-laguntzarik eza*. Gu, euzkaldunok, bizkaieraz itz egiten dogunok, asko ez garanez, ez dira bear ale asko. Onelaxe, garestiak izan bear dira, nai ta naiez, saldu orduan, diru-laguntza berezerik ez badago.

Gure artean Aurrezki-Kutxa ospetsu bat dago: **BIZKAIKO AURREZKI-KUTXA**.

Zenbait bider ez dogu irakurri, poz-pozik, bere goiburua azalduta? "Gure alegiña Bizkaiarentzat da". Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz. Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita, otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta, batez be, emoneko berba lez daroan Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo. Berari erantzuten jarraituko dogu.

Ez ete da sartzen, berba onen barruan, Esku-Meza-Liburua argitaratzeko diru-laguntza emotea? Nik emen Esku-Meza liburuaren alde joten dot; bai, bizkaieraz idatzita dagonaren alde.

Diru laguntza au, bai Jainko-zaletasuna berotzeko, bai Bizkaiko euzkeraren zartasuna zabaltzeko, bide ona baiño obea izan daiteke. Aldarako Meza-Liburuaren euzkera, ba, alde batetik garbia eta erreza da; eta beste aldetik, liburu ori Jainko-zaletasunez gaiñezka dago, liturgi-ospakizun garrantzidunen liburua dalako.

Esku-Meza-Liburu onek bai otoitzak, bai irakurgaiak ekarri bear dauz. Orrexegaitik bearrezkoa da atal bitan banatzea; bakoitzean urte-erdi bat ipiñiaz. Onela egin ezkerero, Esku-Meza-Liburu ori sano egokia izango litzake, egunero erabilteko, ez etxean bakarrik, ibillaldietan be bai.

Batikano'ko Batzar orokorra asi baiño lenago, gure artean eta bizkaieraz argitaratu zan *Eguneroko Meza* Kerexetar Jaimek eta Aita Onaindiak eginda, ta Kerexetaren ardurapean atonduta.

Liburu orren antzera, baiña orain bi ataletan, ondo banatuta egongo litzake gure Esku-Meza-Liburu au, bere barrukoa askoz be ugaritsua dalako.

Asko ez, baiña marraski batzukaz egokiago egongo litzake Esku-Meza-Liburu au. Olango irudiak ondo eginda egon ezkerero, beraiek be ba-dauke esan-nai indartsu ta bizibizia. Dana dala, argi ta garbi agertu dedilla au: marrazki edo irudi orreik euskal usaiñezkoak izan bear dirala zalantza barik.

Azkenengo auxe diñot. Meza bakoitzaren aurrean, oar txikitxu batzuk ipintea, bear-bearrezkoak ez ba'dira be, sano egokiak dira bene-benetan. Oartxu orreitan, eguneko Meza-ospakizuna argiago ikusteko ta bizitzeko, itz-aurre bat egon bear da.

Euzkal-Erriko Elizbarrutietako Gotzaiñak idatzi ebena **ALTARAKO MEZA-LIBURUA** argitaratu zanean, orixe berbera esan bearko da, **ESKU-MEZA-LIBURUA** ikusiko dogunean.

"MEZA-LIBURUA euskeraz abade eta kristau alkarteen eskuetan jarterakoan, itxaropen pozgarri au daukagu, Elizak nai dauan liturgi barriztatzea aurrera eroateko izango dala. Uste dogu, gaiñera, merezi dauan lez onartua eta egoki erabilia izango dala, itxaron daitekezan frutuak lortzeko gogo biziak, au da: kristiñauak "Jaunaren maaian indartu daitezala, Jainkoari eskerrak emon deioezala, abadearen bitartez eta beragaz batera opari errubagea eskeintzean euren buruak eskeintzen ere ikasi dagiela: Kristoren bitartez, egunetik egunera, Jainkoagazko eta bata-besteagazko batasun osoa egiten joan daitezala, azkenean Jaungoikoa guztietan guztia izan dadin" (*Sacro-sanctum Concilium* Konstituziñoa, 48 z.)."

URKIRI'tar TIMOTA  
(M.B.S.M.)

## **EKIN IRAKURTZEN**

### **GIZADIAREN LENENGO URRATSAK**

Gizadiak bere bizitza luzean sortu dauan eragiña, ikusmenak eta oroimenak batez be aurrez-aurre jartzen jakuz.

Asi gaitez an idazten ikasi baiño lenagoko aro luze laiñotsuaz. Gitxi ba dira be lenengo gizonak laga dauskuzan agerpenak, or daukaguz ezaugarri lez, arri txiki landuak, mota askotako lan-tresnak, kobetako marrazkiak, triku-arri andiak, etab. gizon areik ez eben jakingo zel an idatzi —au da, aozko soiñuak zel an izkiz irarri—, baiña soiñu orreik berbetara biurtzeko gaitasun egokia jadetsi ebela ezin ukatu, oraindik irauten daben orduko izkuntzak dirala lekuko.

Ez dira, ba, izkuntzak gure zarren pentsakera ta jokae-rak jakin-erazteko lan-gaillu makalak. Gizon areik euren arr-emonetan erabilten eben berbetia naiko trebea zala argi ikusten da.

Kanpora jo barik, badaukagu etxean oraindiño, zorionez, gure Euzkera parebabagea, jakitunentzako miraria. Luzaro-luzaroan idatzira aldatu bagarik, emen daukagu tinko, illezkorra, nai ta askok urtez-urte arrapaladan lurpera doala uste ta gura izan.

Gure arbasoak berbeari eutsi egin eutsoen, paper-orriei jaramon eskasa emonaz. Orregaitik, bearbada, izango zan gure zarren artean notarioak-eta paperetan jartzera ioiazenei fede andirik ez emotea. Euzkeldun fededun izan ba da, Euzkaldun bere berbadun ez gitxiago. Gure artean berbea emotea naiko izaten zan artu-emonak ontzat artzeko ta beteteko, eta kito! Txapela erastea merezi dabe gizon jator orreik.

### **IDATZ-AROA**

Alan da guzti be, ezin daikeguz ukatu idazteak sortu ta zabaldu egin dituen aurrerapenak. Berbeak ez dauko berez iraunkortasunik. Berbak aideak eroaten dauz, esakerak diñoanez.

Idazten diranak, barriz, gaurkorako ta etorkizunerako balioitsuak biurtzen jakuz. Gertakizunen eta pentsakeraren goraberak zeatzago aztertu geinkez. Geroak obeto aitu lei-

kez joandakoak. Jakintzak erro sakonagoak artzen dauz, eta mundu guztira zabaldu leike.

Erlejiño nagusiak eurak be euren sortzailen eta iragarleen idaztietan oiñarriturik dagoz, eta euren dotriñak aztertzeke geure begien aurrean daukaguz beti.

Ortik aurrera jo geinke, literatura-arloan erri guztiak sortu dabezan idazlan gogoangarriak ezagutzeko egokitasuna be.

Ezin daikeguz, ba, liburuak baztertu gure bizitza aberastu nai ba dogu.

### **IRAKURRI EGIN BEAR DA**

Kirolaz bakarriz ez da bizi gizona. (Baiña orretaz be zeozer esan-bearra da, kirolak egunkarietako bazterretan ba dabe be, lotsaz edo, zati andia jasoten dabelako). Bada-goz bai kirolak baiño beste jakingarri garrantzitsuagoak zeruko ta lurreko soloan. Orreik gure buru-muiñari ta biotzari dagokiozanak diranez, gure nortasuna sakondu ta landatu egiñaz, jakintza-egarria asetzeko lain izan leitekez.

Irakurtenen dakien artean be ez da irakurteke zaletasuna berez sortzen; ekiñalak egin bear dira zaletasun ori sortzeko ta lantzeko. Bearrezkoa ta onuragarria dala kon-turatzeak eta ez azpertzak lantzen dau oitura ori. Gorputza tinko zaintzeko, ekiñaldiak, egunerokoak ba dira obe, eskatzen dauz. Beste ainbeste, eta ez gitxiago, eskatzen dau gure burua bizkortzeak.

Len, gaurko egunetan baiño sarriago, eziketa zertarako izan leikean eztabaidatzen zan, ez-jakiñen artean ain zuzen be. Orain obeto ikusten da eziketaren zioa. Eziketa barik ez gara iñor, abere-antzekoak izan ezik.

Baiña irakurtearen bearrizanak ez dau oraindik gaintitu gizon askoren ajolagabekeria. Ea ezarian egokera ta jokaera au aldatzen dan. Mezedegarria dala laster ikusi leike.

### **EUZKERAZ IRAKURTEA**

Aitatu dogun oztopo ori zabalagoa da euzkeraz irakurteari begiradaxo bat emoten ba dautsogu. Mille aitzaki

# EUSKERA

jarriko dautsuez zergaitik ezin daiteken euzkerazko liburu-rik edo paperik irakurri.

Egia autortu bear da. Ainbeste urtetan euzkera eskole-  
tan ez erabiliak kalte izugarria egin eban eta egiten jarrai-  
tzen dau. Txikitaz galdu zan abaguneak askori euzkeraz  
jarduteko, eta are geiago, irakurteko guraria kendu dautse.  
Orain elduak diranean askok eta askok ez dabe, zoritxa-  
rrez, zaletasun ori biztuteko gauza izango.

Azken urteotan, ikastolen bitartez, aukera ona dauke  
gazteak. Oneik, alegiñak egoten ba dabez beintzat, aukera  
ederra dauke euren eskuetan. Errezago jadetsi leike euzke-  
raz irakurteko egokitasuna be, txikien eta gaztien buruak  
nastuten ez ba ditue.

Beste aitziki bat, eta ez sustrai bakoa izan be, auxe  
da: liburu eta egunkarietan erabilten dan euzkerea guztiz  
ulergaitza dala, Bizkaieraz jarduten dabenentzat bai  
etxean eta bai inguruan.

Ez neunke esango zitziki orreri ez litzakiola jaramonik .

egi bear. Zorigaitzoz, ikastoletan eziketa artu ez dabenen-  
tzat, oztopo andia da benetan gaurko komunikabidetan  
erabilten dan euzkerea, batez be, eta barriro diñot, Biz-  
kai'ko semientzat. Begirunea opa bear litzakie bai ira-  
kurleai bai idazleai, Bizkaiera euzkalkirik zabalduena  
dogu-ta.

Alan da guzti be, badago euzkera errikoia nun iraku-  
rri, irakurteko gogoa daukenentzat, aletin apur bat egin  
nai ba lebe. "Euskerazaintzak" eta "Euskerazaleak" baz-  
kunak batez be, arlo orretan gizonki jokatzen dakie. Berton  
begien aurrean daukazue ZER, Bizkaiera utsez, garbiz eta  
errezez egiña, eta euzkerak daukozan idazle bikaiñen idaz-  
lanak argitaratuaz, zuon gogoa bete daiken aldizkaria.

Bizkaierak beti euki dauz idazle onak len eta orain.  
Atsegingarriak dira gaiñera, geure erriko oiturak, jolasak  
eta jokaerak gatz-ozpiñez oriotuak. Badozu ba nun auke-  
ratu, gogorik ba daukazu.

ZUBIKARAI'TAR JOSEBA

## ITUN BIZI NAZ

1

Itun bizi naz,  
beti naigabez,  
nekegarri iat bizia.  
Anai-tarteko  
burruka ankerrak  
zatitu du Alderdia;  
pozez zoratzen  
ta algaraz dakust  
gure betiko etsaia;  
naiago neuke  
Euzkadi baiño  
nerau lenago iltia.

2

Oi euzkotarrak,  
ene anaiak,  
egin daiguzan bakeak;  
alkartu eta  
itxi betiko  
banakuntzak ta asarreak;  
zabaldu beingoz  
Euskadigaitik  
guztiok biotz-ateak;  
alkarte onek  
errettuko dauz  
Euzkadirentzat bideak.

3

Zar eta gazte,  
gizon eta andre,  
euzko endaren sendia;  
ez daigun galdu  
Arana-Goirik  
utxi euskun ondoria;  
zaindu gogotsu  
ta itxaropentsu  
beragandik ikasia;  
ezergaitik ez  
iñoiz ukatu  
Euzkadiren izatia.

4

Euzkadi dogu,  
guk Aberria,  
ez España, ez Prantzia;  
zapaldu eta  
deuseztea da  
etsaiaren guraria;  
ZIN egin daigun  
il arteraiño  
bere alde jokatzia;  
obe dogu ba  
ikusi baiño  
Euzkadiren il-zoria.

**MIGUEL REDONDO, GIZON TREBEA**

Izen au, niretzat gizon arrigarri batena da eta orregaitik dakart ZER'en orrietara danontzako dalako ejemplu on bat.

Emen ipiñiko dodaz bere EGIKIZUN zintzoak, tre-beak eta ikusgarriak.

Bizkaitik urrun jaiokoa, zuzen esanda, CIUDAD-REAL'en etorri zan mundura.

Beste asko lez, bere Errialdetik urten egin bear zan, ez eukelako lanik, edo beste modu baten esanda ezin ebalako atara bizimodua.

Onelan 23 urte ebazala, bizkarrean artu fardeltxo eta gazte ori Bizkai aldera biurtu zan.

Ona eldu zanean, zuzen-biderik gabe, askenean gelditu zan Zornotza errian.

Bere lenengoko bearra, lana aurkitzea nunbaiten izan zan.

Askenean, ate bat jo, besta bat be bai, eta topau dau lan egiteko tokia.

Lanean ba-daki, langillea da, ez dau birritan agindu bearrik lana egiteko.

Alde batetik ez daukelako beste erremediorik; bestetik, jakiñean dago, bere izerdiakaz ateraten ez ba'dau. BIZI MODUA, lurra jota geldiko dala erbestean.

Ez dau gura joan barrero bere jaioteko Errialdera utsik.

Denbora gitxian aurkitu dau lanpostua. Zerua agertu jako bere begien aurrean. ERA ori aprobetxatu be bai ondo. Gogoz egiten dau lana, egunik itxi barik.

Jainkoak be zintzoari eta bearrezkoari ondo laguntzen dautso.

Gizon ori geroago eta maiteago da lanean.

**EZKER ONEKO GAZTEA**

Beronek argi ta garbi, eta ganera edozeiñen aurrean diño:

Nik BIZKAIKO ERRIALDEARI, DERRIGORREAN ESKERRAK EMON BEAR DAUTSODAZ.

Zergaitik? Bertan aurkitu dodalako nire zoriontasuna, pakea, poza biziteko, eta GIRO ona jente euskaldunen artean; ez bakarrik niretzat, nire sendi edo famili guztientzat.

**GIZON AU DAGONERA JARRI DA**

Denbora gitxian DAGONERA JARRI da Zornotza'ko errian.

Bai olantxe da. Gizon argia, zabala, danekin berba egitekoa, danekin lagun. Ez dauko Euskaldunekin berba egiteko IGUINIK, gitxiago amorrurik. Geure artean beste bat eginda dago.

Euskeraz apur bat badaki, denboraz ikasiko dau.

**JUBILATUEN ETXEA**

Zornotzan, zorionez, Jubilatuen etxe bi dagoz. Bat Erdeldunena, lenengo sortu zana, ta bigarrena Euskaldunena.

Eta ikusi zelan, gure Migel, ez da sartu Erdeldunen artera.

Jubilauen etxean, Euskaldunenean baiño.

Beste Euskaldunen batzuk lez lan egiten bertan, danakin berba, ta onein artean pozez beterik aurkitzen da.


Ez dautse AMORRURIK Erdelduneri, EZ, bera aurkitzen dalako GIRO ONEAN Euskotarren artean.

**GIZON TREBEA**

Mikel'en izena ez dakart ona, bakarrik orain arte esanagaitik, baita be, GIZON OSO TREBEA dalako, orain ikusiko dogun lez.

Jainkoak guztiori emon dausku zeozeren TREBETASUNA: batzuk ankan edo oiñean daukie trebetasuna: Fubolistak, ariñekalariak mendikozaleak...

Beste batzuk daukiez ESKUETAN, pelotariak, marrazkidunak; arek buruan idazteko, itzaldiak egiteko; onek biotzean, lagun urkoak maite izateko eta euren alde mundu zabalean, eurak daukien maitetasuna Jainkoaren alde zabaltzeko.



## GIZONAK

Neure irakasle denboran adibide asko ikusi dodaz ikasleen artean eta gure Migel onetaikoen arteko bat da.

Gizon oneri Jainkoak emon dautsoz ESKU TREBEAK, baiña oso trebeak.

Ta zelan dakit nik bere eskuaren trebetasuna?

Ez dago begiak zabaldu besterik. Zornotza'ko Jubilauen Etxean dagoz bere eskuagaz egindako lan ikusgarriak, politak, arrigarriak ugariak...

Jubilauen gela bat dago berak egindako itxasontzikin beteta, ta zelako egokiak.

Birritan egon naz an ta bigarreanean egon zan Ingalete-

rrako emakume bat lan orreik ikusten, ta arrituta gelditu zan.

Esan dot itxasontziak dagozela, baita be PIKASO' REN Gernikako Argazkia be neurri berberan ta olean lan dana eginda.

Lan onegaitik ezkeiñita dago MILLOI BAT ETA ERDI; baiña berak diño, niri au orain ezkeiñiten badaustie; geroago ZER EZKINIKO DAUSTIE?

Beste lan asko geiago dagoz, bas-auntz baten burua oso ederto eginda.

Itxasontzi kontuan ogeitamar baiño geiago.



### ESKULANEN ERAKUSKETA DONOSTIAN

Aurtengo Irailaren 23tik 27ra: Eskulanen Erakusketa egon da Donostiako Udalaren Bee Solairuan.

Migel ara joan da bere lan eder bategaz.

Itxasontzi bat eroan dau Erakusketa orretara. ERAKUSKETA ORREK DINO:

“III Olimpiada de Jubilados de Euskadi 86.

Gure gizonak atara dau LENEGOKO SARIA OL-LANEAN”.

Eta etorri da, zerutik etorrira lez pozik. Eta egotekoa da.

Nun eta zelan bizimodua atera leiken pertsona batek!

Txapeldun “COPA” ORREK diño: IRUGARREN OLINPIADAN ZUREZKO LANEAN: “TXAPELDUN”.

Egin dauen ZUREZKO LAN guztiak eroan ba'leuz, nik uste dot SARI guztiak ekarteko bultzi bat bearko ebal.

Ganera lan dan-dana eginda dago berak egindako TRESNAKIN, ez denda batzuetan erosita.

### NOIZ ARTU EBAN LAN ORREIK EGITEKO ASMOA

Migel'en Sendia ugaria izanda; baiña orain SEI baka-rrik bizi dira.

Seme edo alaba guztiak TITULUDUNAK dira.

Osagille bi beintzat bai eta besteak enparaukuak.

Sendia apur bat aundi egin ziranean, Donostira joateko ASMOA artu eben senar-emazteak, sendi guztiakaz.

Eurentzako Donostian dana zan barria, IKUSGARRIA, polita, iñoiz ez ebelako ikusi itxas-ingururik.

Itxas-ingurua ikusita gero, eldu ziran “ACUARIO” deritxon etxera.

Gure gizona KARABELA baten begira gelditu zan.

Bere emazteak diñoan lez: An geldituko zala berak ebatu eta atera ez ba'leu andik.

Orduak egin ei ebazan ONTZI ORRI begira.

Iru bider deitu ei eutson ta besteak jaramonik egin barik bertan jarraitu ei eban begira.

Azkenean, zelan edo alan, atara eta etxerantz abiatu ziran.



Berak diñaut: Bidean eta gau guztian ekin neban auxe esaten edo eskatzen Jaunari: JAUNA EMON ESKU TREBEAK OLAKO ONTZI BAT EGITEKO.

Urrengo egun baten asi ei zan, gela baten sartuta, bere AMESA betetzen.

Egunak joan eta egunak etorri, gure gizonaren AMESA egiztuten joian.

Ainbeste ordu, lanean ekinda bere AMESA EGIZTU zan.

Eta ikusi eban bere lana ederra, egokia eta zuzen zuzen eginda.

Urrengo ASMOA izan ei zan, bere Errialdera joan, eta angotxe KARRASKA'ko Ama Birginari opatu bere lana, eta bertan itzi.

Andik biurtuta, lanera etorri zan Zornotzara sendiaren beartasunak betetzeko.

Baiña gure gizonak AMAR ordu sartuta gero lanpostuan, zerbait artu gosea kentzeko eta sartzen da gela baten ta an jarraitzen dau beste lau edo bost ordu bere amesak betetzen.

Askotan LO ASKO egin barik.

Orrenbeste orduen IZARDIAK orain ikusten dira Zornatza'ko Jubilauen gela baten.

EGIAZTU nai dauanak, ez dauko Zornotza aldera bira bat egitea baiño.

## MIGELN ANTZERAKO GAZTE BATZUK

Berrogeitamar urtean irakasle bezela, ez dot esaten ikusi dodazala olako asko baiña bai bat edo beste.

Bilbo'ra etorteko urtea zan, orain 19 urte.

Askenengo ikasleak eroan nebazan, Gernika'ko "ESCUELA DE APRENDICES" era.

Ango zuzendariak itandu eustan: ZER DAKARZU?

Nire erantzuna: Bi NORMALAK eta irugarrenak, iñoiz ez dauts emon ikaskai bat ondo, baiña ESKU OSO TREBEAK DAUKOZ.

Olan gelditu giñan.

Zergaitik esan neutson ori: Berak aurreko urteetan egin ebalako Eskolako Erakusketan Idien burdi bat, txorien kailo bi, uzterri, aiskora ta beste tresna batzuk baiña oso ederto amaituta.

Bere tresna, gauza oneik egiteko bakarrik izan ziran: AIZTO BAT eta LEIAR zati bat, zurezko gauza oiek ondo LANDUTEKO.

Beste barik, banatu giñan bakotxa bere tokira joateko.

Urte aretan etorri nintzan Bilbo'ra nire lanpostuan jarraitzeko.

Orra or egun baten, andik lau urtera, mutil orren IZEKO eta lengusu bategaz aurkitzen naz KANPO BOLANTIN'en eta agurtu ondoren, diñaute: Badakizu, Jauna, gure Iñaki Arruti Barakaldo'n Bizkaiko TXAPELDUN IZAN DALA ZUREZKO LANEAN?

Ez neutson erantzun. Euren POZA, eta nirea be bai! Nirea aundiagoa!

Eta gero Barcelona'ra joan bear ebalu Españeko, TXAPELDUN nor izango ete zan.

Olakoak bat baiño geiago euki dodaz batean eta beste.

Urrengo egunean mutiltxoari eta bere ama alargunari idatzi neutsen eskutiz bat nire poza eta alaitasuna agertuz eta jarraitzeko egitada orretan, bere onerako zelan izango zan lan guzti ori.

## IDAZKI ONEN ONDORIOA

Bizkaian 1.150.000 bizilagun gara, sasoi onetan, gitxi gora bera. Guztiok olakoak bagiña, beste modu baten egongo litzake gure Errialdea. Leenago, zergaitik egon zan Bizkaia gorengo MAILLAN?

Españeko guztien gorengo maillan?

Leen lana gogor eta zintzo, ta gabetik goizera eta goizetik gamera egiten zalako.

Zergaitik gagoz amaikagarrengo maillan orain edo atzerago?

Askok eta askok ez dabelako gura lanik egin, nai ta euki lanpostua.

Ondiño ez da denbora asko agindarien aotik entsun dotela:

Langille bat goizeko zortziterdian sartzen zala KARKABAN eta an egoten zala ordu bata arte ele-berri bat irakurten.

Illen askenean onek SARI aundiagoa eskatuko dau.

Beste agindari erdiko batek beste baten au diñaut:

Idazgelako langille batek ikusi ei eban Injenieru bat, lantokian batera eta bestera; ta jagi bere lekutik, joan injeniaren ondora, eta asi ei zan pasiatsen.

Olako baten injeniukoak diñotso: Zu zertaroko etorri zara ona:

Nagien erantzuna: Zu bezela pasiatsen ibilteko.

Olakuekin gure Bizkaiak GORAKADA aundiak egin-godauz.

Olako alperrak banaka banaka asko dagoz, baiña eskerrak bestaldekoak be asko dagozena, ostantzean laster KINA jota geldituko litzake gure euskalerrria.

Olako jenteakin, ZELAN eta NOIZ bardintuko gara Japon'darr, akin, Alemaniatarakin eta Europako enparauakin?

Zergaitik ete da, Alemania'ra doazanak emengo geienak lana oso ondo egiten dabela, eta begikoak dirala?

Nire UZTEZ, an GIRO langillea ikusten dabelako, ta bakoitzak esango dau bere. KOLKOAN: EMEN LANA GOGOR EGITEN EZBADOT, jaurtiko naue barriro naure errira, alper bat lez.

Guztiak lana egiteko zintzo, GIRO ona ikusi bear de INGURUAN.

Besterik ez, egin daigun guztiok alegiña.

ETXEBERRIA'tar ISIDOR

## RAFAEL MIKOLETA, OLERKARI

Bada gaur, naizta zentzun gitxikoa, onako ur-joan edo korronte bat eusko baserriaren aurkakoa ta kalearen aldekoa. Eta euskaldun jatorra nungoa ete dogu, urikoa ala baserrikoa? Menditik ez ete dakargu geure leiñu argia? Alan be, gaurko euskal idazle ta olerkari, poeta asko gure baserriarrak gitxi-eritxi ta albora itxi nairik, nik ez dakit zelako kirtenkeriak idatzi dabezan... Rafael Mikoleta, baiña euskal koplekaria, euskeraz bertsoak zelan antolatu ta apaindu erakutsi euskuna Bilbo'n, orduan uri txiki ta gaur uri aundi dogunean jaio zan 1611-azaroaren 19'an.

*Bizitzea ta euskal lanak.*—Amazazpigarren gizaldia-  
ren lenengoetakoa da. Miñ Mikoleta ta Maria Zamudio,  
aren gurasoak; biak bilbotar sendi onekuak. Idazlearen  
liburuetan agertzen danez, Lizenziadu titulua lortu eban  
lenengo, ta gero abade egin zan. Bilboko artxibuetako  
agiri-liburuetan sarri agertzen bai da be aren maisu-titulua,  
ez dakigu alan be nun egin eban arima-zaintza, ezta nun  
eta noiz il zanik be. San Anton'go eleizan bateatua izan  
zan.

Gizon jakituna ta euskaltzalea genduan. Berau da  
beintzat euskal gramatika osotzen lenen-lenen alegindu  
zana. Eta ba-dau onek bere meritua. *Modo breve de apren-  
der la lengua vizcayna* idatzi eban 1653'an. Etzan alab be  
bere egunetan argitaratu: Londres'ko MUSEO Britaniku  
dalakoan aurkitzen da gaur be, Mikoleta'ren esku-idatzia.  
Nundik eta zelan joan zan ara? Bizkaiak eta Inglaterrek  
alkarregaz eukezan artu-emonak eta salerosketagaitik  
bear bada. Lenengo Sir Thomas Browne'na izan zan, eta  
gero zelan ez dakigula London'go liburutegi ospetsura jo  
eban. Argitaratu, oster, Barzelona'n egin zan lenengoz,  
Salbador Sampere Miguel'en pentzutun, ango "Revista de  
Ciencias Hisóricas" deritxonaren orrietan. Bigarren argi-  
taldi bat be an betan egin zan, 1880'an. Eta irugarrena  
Dodgson euskaleriak osotu eban Sevilla'n, 1897'an.

Askok ikutu egin izan dautsoe liburu oni, auren ondo-  
renak atera nairik. Guztion artean ondoen, alan be, lemoar  
apaiz jakintsu J. B. Eguzkitza'k. RIEV deritxon aldizka-  
rian argitara eban, 1930'an, "Mikoleta'ren euskereak eta  
gaur Bizkaya'n darabilgunak, ze alde ete dauke?" amar  
orraialdeko lan jakingarria. Eta sarrera lez, zazpi ataletan  
bereziko dauela diño bilbotarraren lana.

"—Lenengo atalean "izen eraskin eta izen-ordekoetzaz  
diardu.—Bigarrenean, "egin, izan eta egon" aditzen irabia-

kerea dakar. Irugarrena, iztegi laburtxua da. Iztegi onen  
jarrai Dodgson'en oar batzuk datorz. Boskarren atalak  
alkarizketa luzetxua, euskal-zenbakera ta asteko egunen  
izenak dakarz. Seigarrena euskal-olerki edo izneurtuetzaz  
da. Zazpigarrenean, Mikoleta'k bere lan onetan darabil-  
tzan 163 aditz-irabiakera dakusguz: bata-bestearen jarrai  
ta urrengorik urrengora ipiñi ebazan Dodgson jaunak,  
oitura ebanez."

Uts batzuk gorabera, batzuk parkagarri ta beste ba-  
tzuk, gogortxoagoak ditunak nunbait, eder jakon Eguzki-  
tza'ri erderaz idatzia, baiña euskal gramatika zan Mikole-  
ta'ren lan au. Laburregia ziñez, jataldi eder bat ariñegi  
amaitzen jakunaren antzera. "Mikoleta'en euskalitzia au  
laburregia da; baña euskera izpirik be ez ekientzat idatzi  
ebala deritxat; oneik, geyenez, laburzaleak izaten dira-ta,  
uts ori parkatu bear yako".

Gramatika au aztertu dabenak dirauskuenez, gramati-  
ka lez, lenengo ekiñaldia zan-eta, balio aundirik ez ba'dau  
be, ezin geinkeo uka bere garrantzia barnera begiraten  
ba'dautsogu. Bizkaitar izkelgiko berba ederrez josita dago,  
ta adizkera bikaiñez beterik. Egillearen asmoa etzan, ain  
zuzen, bizkaiera erakusteko bide bat urratzea baiño.

Darabilen euskereari begira, gaurko azterlarientzat  
atan be, txalogarri dogu Mikoleta'ren lana. Bilbotarrak  
garai aretan aotan erabilen izkera jatorrean asmatzen ditu  
alkar-izketa gatz-ozpinduak, olerkitxoak eta gaiñerakoak;  
tokiko esaera zar gardenez eta txoko aretan sortuaz joia-  
zan pitxi apaiñak aurrez ereiten ditu bertan. Bai, lan osoa-  
ren gunari goi-samarretik begitu bat egin ezker, laster  
konturatzen gara, egillearen asmoa etzala elizti bat era-  
tzea, Larramendi'k, esate baterako, bere *Eziña Egiña*  
idaztean euki eban lez. Ba-ditu, ta ugari, erderatik artuta-  
ko berba ta esakunak; baiña, geienik, badau aren lanak  
gatza ta bizitasuna. Eta idatzi zanetik laugarren gizaldira,  
guretzat gora interesgarria.

*Olerkari.*—Mikoletak euskal olerkiaz be zer-edo-zer  
adierazo nai euskun. Eta arlo onetan be aren itzak dira  
euskal literaturan daukaguzan lenengoak. Ak erderaz esa-  
na Eguzkitzak onela euskeraztu eban: "Yai-egunetan nes-  
katoak abestu daroezan "lelori, lelori" orreik alde batera  
itxi-ta, beste izneurkera bi dagoz euskeraz —diño Mikole-  
ta'k—; geyagorik eztagoanik eztiñot; baña oituenak orre-  
xek biok dirala, bai: bitzuok gaztelerazko "romance"-en

antza dauke ta bigarren erako neurtitzak lenengokoak baño luzetxoagoak izatea baño beste alderik, ez. Olerkari batzuk oraintsu erderazko aapaldiak eredutzat artuta, euskeraz be ainbat izneurkera barri darabillez; baña izneurkera ta aspaldiok euskaldunentzat ulergatxak dira-ta, orretan diarduenok ospe gitxiko lana dagie”. Eta Eguzkitza’k jarraian: “Gai onetzaz Mikoleta’k diñoan ori egia danik eztot uste”.

Ba ekian itzak neurtzen, eta euskal poetika zelan izan bear dauan erakutsi nairik diarduanean, berak, asmaturiko maite-olerkitxo bi sartzen dauz, adibide lez. Ona bata:

“Amoren kontentuek / eztaude irauten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten.

Lar adi bazagokaz / fabore bateri,  
etorriko yatzu / gatxa bertati.  
Ta aztuten badozu / eztau ondo eiten;  
kanpoan lotak legez / dira galtzaiten.

Alkar on baderetxe / bartan zeloak  
penaz betetan ditu / bien gogoak.  
Onegaz amoreak / dau gogaituten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten.

Atzerengo-giño / kontentu izanik,  
ezta iñor joango / amorea ganik.  
Uretan bitsa legez / dira joaten,  
kanpoan lorak legez / dira galtzaiten!”.

Bigarrena, berak diñoanez, luzeagoa da, sonetu antzera, eta ona estrofa bi, nundik dabillen jakin daizun:

“Denpora baten / on oi neretxun,  
baia mudatu / nindie,  
zerren penatan / bior ekidan  
emon zengidan /zoria.

Alper-alperrik / iminikozu  
zeure indarra / ta izana,  
zerren eztozu / biortuko zuk  
lengo biotza / zeugana.”

Biak bat datoz, erdizka beintzat, gaurko gure zortziko nausi ta txikiakin. Eta zer bitxi au gaiñeratuz, amaitzen dau: “Kantauri Parnasoan gaur-egun be batzuk idatzi dabez amarrekoak, lirak eta sonetuak euskeraz, erderaz daukiezan azentu ta konsonanteekin, baiña dirdai urriko bidea dozue, neurri orreik eta abar, euskeraz ulertzen dabezanak gitxi dira-ta”.

Zortziko au, 5/5, 5/3, Bizkaian beñik-bein zaarrenetarikia dogu; beñiola bateko bertsolariak geienez erabili ebena, 7/6, 7/5 ezta ainbestekoa, eta ez dator bat osorik beintzat, gure zortziko txikiakin, naiz-ta kideko izan. Gaurko bertsolarien antzera jokatu eban nunbait Mikole-ta’k bere bigarren poema au egiterakoan. Eta bertsolariak, dakigunez, iñoizka doiñuak eskatu baiño itz geiago sartu daroez euren kantu-neurtitzetan.

Bizkaitarrok geure literaturako lora pitxiak jaso ta zabal-azo bearra daukagu; orrela jardunak dira batzuk, baiña ez geiegi. Azkue zanak, egia esan, ez eukan txatxartzat Mikoleta’reñ liburua: 41 bider aitatzen dau bere *Morfologiaan*. Nik, olerki biok, sartu nebazan bai *Milla euskal Olerki eder* poesi-bilduman eta bai *Las Cien mejores poesias de la Literatura Vasca*. K. Etxenagusiak eta M. Zaraktek, bardintsu egin eben. Merezi dauanari, berea emonez, ez bedi iñor lotsatu.

AITA ONAINDIA

**ARPIDETZEKO TXARTELA**

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar .....

..... kalean (auzoan) ..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan ..... zenbakidun diru-kontura.

## ZUBIKARAI'eri eskerrak

Euskera jator eta argi baten, ia egunero “Deia” egunkarian Augustin Zubikarai'ek idazlan bizi eta gogoko bat eskeintzen deusku. Jakiña, irakurri ezeze, gu lako irakurleak, iruntzi be laster egiten dogu, kontutan izanik, euskeraz onelako lanak ez dirala ugaritzen.

Zubikarai'en idazlanok danori jatorkuz gogoko. Bere lanak pozik onartzen doguz, gure erria, gure oiturak eta gure bizi-moduaren oiñarriari dagokioz-eta.

Euretariko bat, urrillak l'ean idatzitakoa, batez be, oartzekoa izan dogu, ain zuzen be, gure irakaslea Xabier Peña zana bertan aitutzen daualako. Aitatu ezeze, bere idazlan guztian bere bizitza, bere lana ta arazoak eta bere gaixoa eta eriotzari buruz azaltzen da. Geiago: lenengo lerroetan asi eta lan guztian, amaitu arte, bere bizitzaren barria adierazten dau.

Zubikarai jaunak, eredu bezela aurkezten dau Xabier Peña, izenburutzat “Euskal irakasle eredu” jarririk. Amaitzeko “Xabier Peña'k merezi dau bilbotar euskalza-leen gogoeta” esaldia darabil.

Eredutzat artzea. Auxe diño Zubikarai'ek eta geuk be ber-bera diñogu. Euskeraz irakasteko berak sorturiko metodoa, ikasteko ulerterreza eta argia, baita orekatua dalako eta erriak berak darabilen euskeran eginda.

Atsegin izaten jakun bere klaseetara joatea.

Bere esku-zabalaren erakusketa bezela, bere ikasle batek auxe esango dau:

“Ikasturtea amaitzean (azkenengo mailletakoai beintzat) ikasleen artean oitura lez liburu batzuk banatzen euskuzan (baten nik aita Onaindiaren olerkiak aukeratu nebazala gogoratzen naz), txantxetan legez edo: —Olan etzara iñoiz aberastuko— esan neutson. Berak, begiratu eta barre egin eban”. (Jakiña, batere norberakeririk agertzen ez eban gizona zan).

“Merezi dau bilbotar euskarazaleen gogoeta” diño Zubikarai'ek eta guk be berbera diñogu. Bai euskerearen ardurea darabilen bilbotar guztiona, berak Zubikarai'ek diñoan legez, Bilboko euskera erakusleen aintzindari izan zalako. Gaiñera berak irakasten eban euskerea, benetako

euskera jatorra ta normala zan ezetariko biurririk barik, Bilbo-aldean eta Bizkai guztian entzuten dana, bai eta Euskalerrri guztian erabilten dan joskerea.

Arazoak izan ebazala? Bai jauna, oba ez eta oztopoak be, agintarien aldetik, polizia aldetik, bearbada.

Mendi-zale aspergabea zan eta urtero, txango baten, Euskalerrria ikusi eta arakatu, eta ikasleakaz mendietara igon egiten eban udabarrian, ikastaroa amaitzean, bagillan, edo.

Iñun ba-da, gizon ona eta maitagarria, axe zan Xabier Peña.

Bere eriotzaren barria, ekatx baten tximisteak norberaren gaiñean jausi eta buruan jotzen dauan lez etorri jakun. Siñistu ezin. Baiña mundu onetan gauzak olan izaten dira batzutan. Bere sasoirik onenean itxi bear ginduzan. Bere lana, bere ainbesteko eta garrantzi aundiko lana, bertan-bera itxi bear. Eriotzak aginduta.

Edeski edo anekdota bezela auxe esatera noatzue:

Bere illetaren eguna udagoieneko arratsalde eder bat izan zan eta Euskerazale'ko irakasle biren laguntasunean joan nintzan Tolosa'ra. Baskal-ondoren Bilbo'tik urten eta... galdu egin giñala, siñistuko nozue? Antza, errepide edo autopistan okerreko bide edo lekutik urten eta Errezil inguruetan balduta ibilli gintzazan. Bere azkeneko agurra emotera be gu berandu iritxi!... Au tamala! Berak ikusi ba eban gu lako iru kokolo Gipuzkoa'ko errietan zear arelako arratsalde eder eta eguzkitsuan balduta Tolosa'ko bidea aurkitu exiñik!

Orain, Xabier Peña ikastolaren ikasle izan giñanok, emendik, lerro apal onetatik, Zubikarai jaunari eskerrak emoten dautsaguz “Deia” egunkarian bere irudia gogortzeaz guri ausarta edo aukera antzeko bat emon deusku-ta zeozertxu esateko eta bere irudia goraltzeko, Xabier Peña'k berak, geiago merezi eban baiña.

ZER aldizkariari be gure eskerrona agertzen deutsogu, eta bide batez, zorionak! esan, bere 100 gn. alea edo zenbakia argitaratu eta betetzea ospatu daualako.

LARRONDO





## AGUR ETA GERO ARTE, BITTOR

Entzuten da batak besteagandik aldi txikian, osagille ospatsu bi, gizon zintzo bi il jakuzala errian, erriak benetan maite ebazanak: Lenen Zabala'tar Pontzi ta urren Fernandez Arostegi'tar Bittor. Eta, erriak maite ebazan osagille on, alai langilleak eta gizon zintzoak ziralako, euzko abertzaleok euren izakera garbitik gaiñera abertzalejeltzale jatorrak izan diralako, bizi izan diran urte guztietan.

Bittor, Galdakanotarra zan jaiotzaz, izatez eta ezikeraz. Bere ama, galdakanotarra eta aita atzerritarra baiña gaztetatik erri onetan tinkatua. Gaztetxu zala, ikasle zala, murgildu zan gure artean, euzko abertzale arloan, eta, aztun egiten jakon aitaren abizena erabiltea, naita sarritan esaten geuntsan, ez eukela abizenak zer ikusirik berau abertzale zintzo izateko eta, orretaraxe iraun dau Jainkoak Bere aldamera deitu dautson arte.

Oso gizon bakana izan da, ezetariko arrokeri bagea, alai ta edozeñeri laguntzeko beti gertu aurkitzen zana. Azken-aldean, jeltzaleon tarteko asarre ta ulertu eziñak tamalez euken, baiña, beti lez gertu Euzko Alderdi Jeltzalearen magalpean lan egiteko, ez zalako edozein kezka gaitik "jakea"aldatuteko gizona, gaur-egun, tamalez, beste aintabatek egin daben antzera.

Bai-ta gizon ikasia izanik, irakurle ugaria zan eta, nai-ta euzkeraz itz egiteko ez eukan erreztasun aundirik, atsegin izaten jakozan bizkaieraz idatzitako idaztiak eta batez be gure ZER. Baten baiño sarriago esaten euskun: "asiararik azkenerarte irakurten dot ZER eta, pozik dan-dana ederto ulertuten dodalako", "onelako euzkera ibilliko ba'leuke egunkari ta aldizkari guztiak, zenbat geiago irakurriko litzaken euzkeraz...!".

Lenago be iñoz esanak gara, gizonik onenak abertzalerik zintzoenak, kenduten dauskuzala gure Jainkoak, zuzenenak beren magalpean euki nai ditualako bear ba'da? Orretara ba betirako eukiko al-dau aldamen baketsuan.

Gero arte, Bittor adizkide zintzo ta aberkide agurgarria: Agur.

### BASERRIA, EUZKERAREN KABIA

Larrabetzu'ko uritik aneurkin (kilometro) batera aurkitzen da Uribaso basoetxe edo baserri zabala, lenago basoetxerik geienak lez, bizi-leku biko etxea.

Basetxe orretan bizi izan zan lau edo bost urte ebazenetik ezkondu arte, nire ama kutuna, bere guraso Mendio-

la'tar Txomin eta Zarandona'tar Maiton (María Antonia) eta, beste bost edo sei neba-aiztagaz batera. Ori dalata, gaztetxutatik ikasi genduan basatxe ortarako bidea, aitiba ta osaba-izekoak (amama ez-genduban ezagutu, ni jaioko baiño len illa izan zalako) agurtu ta euren laztan samurrak eta orduan umetxuentzat saririk aundiena zan intxurtxuen batzuk edo sagar umautuen bat eskuratutzeko, pozez beterik joaten gintzazan.

Orain be, noz edo bein, pozik joaten gara basetxe ortara, atetik, kanpotik argazkian ikusiten dan erara ba'dago be, barruz "txalet" apain baten antzera aurkitzen dan basetxe ortara, bertan bizi diran Mendiola'tarren atea beti zabalik daukuguzalako; eskerrik asko.

Sarritan esan oi da, baserria, euzko basatxeak izan dirala gure izkuntza, euzkera bardingaberen kabiak eta, alantxe dala esan geinke geure ikusmenez eta entzumenez ikusi ta entzunak garalako, aldi onetan pizka bat aldatua ba'dira be espaiñiar irrati ta urrutikusizunaren erruz, basetxe guzti ortara sartu dalako gaztelera eta berak dakarzan oiturak, gure oitura ta izakera garbi asko aldatzen dituenak.

Gure irakurle askok dakiten lez, geien bat mendi-zalatasunak bultzatuta, Euzkadi'rik geiena be bai baiña, Bizkai guztia zeartuak gara, mendirik-mendi eta baserrik-babaserri eta, sarritan zuzendu gara Gernika'tik Sorkaldeko mendi kozkorretara, inguru ortako baserriar adiñekoak, zaartxuakaz itz egitearren, oindiño be! Eurak darabilen euzkera txukuna entzutearren, aldi onetan guztiak aztuta dagozan itz jator asko euren abotik entzuten diralako. Ori da eredutzat artu geinken euzkera, bearba'da pizka bat landuta, baiña, oñarrizat artuta eta ez euzko Urrutikusiñak eta izparringi batzuk argitalduten dauskuen "euskara" mordoillo uler-gaitxa.

Esan doguna dala bide, benetan samingarria izaten jaku basetxeak utsik, bizitanle barik ikusitea edo "txoko"-lez barriztuta baiña erdel-usaiñez beterik, basetxe orren jatorrizko zera guztiz aldatuta. Basetxe zabal ederrik asko dira gaur-egun, lenen aipatu dogun Larrabetzu'n bertan be ez gitxi, tankera orretan ikusi leitekezanak.

Ziur gara, euzko basetxe orreik eta Arana eta Goiri'tar Sabin'ek adierazo euskun euzkeraganako maitasuna izan ez ba'ziran, azkenengo 50 urte oneitan guztiz lur-joko ebata gure izkuntza euzkera maitiak. Gogotan euki ori, irakurle!

ALTUNA'TAR JOSU

## LETONA JAUNARI ITZAL GUZTIAZ

Aita Letona, euzkal idazle ugari eta adizkide agurgarri orrek aitatu nozu ZER'en 100'garren zebakian, nik ZER onen beste zenbaki baten Unamuno atzerrizale idazle ospetsua zala-ta idatzi nebanari erantzuten lez. Zeure eretxia idatziteko, nai-ta Unamuno babestuteko izan, eskubide guztia dozu, jakiña! eta aipatu ez ba'ninduzun idazlan orretan, ziurki, ez neutzun jaramonik egingo. Arretaz irakurri dot zure idazlan guztiak egiten dodazen antzera, baiña, esan dodanez nire izena aipatu dozun esketiño, beartuta aurkitzen naz zerbait erantzuteko.

Eta, orretarako, zeuk amaitu dozunetik asiko naz, aldantik laburren, lerrorik gitxienaz erantzuten.

“Eztabaidea, gizabidez erabili ezker, ona izaten da” diñozu eta, ziurki orretara izango da, baiña, ni ez naz eztabaida-zalea. Batetik, dakidalako gitxi dakitala eta orretara izanik, geienetan beintzat ez neukela beardan argibiderik aterako nai-ta neure senean egon, bada, geiago edo gitxiago danok daukaguz iritxi ziurak eta utsak. Eta, orretara izanik, naiago dot orretarako bear dan asti-unea, beste zeregin onurakorrago baten igaro, baiña, bearreko da oraintxe zerbait idatzitea.

1901'gn. Bilbo'ko Lora-Jokoetan Unamuno'k esan ebazan itzak aitatzen nebazan, “Aldenduz zoazen erria zara, ludiko izaerari aurrerapena galazoten dautsazu, joan egin bear zara”. Eta esaera zital ori zuritu nairik onetara idatziten dozu: “Oartu egizu (Altuna jauna), esaldi orreik gazte zala esan ebazala eta Lora-Jokoak ziran ezker, zer esaten eban asko jakin barrik edo gogoak bere trebetasunera ekarteko esango ebazala”.

Egia da, aldi aretan oraindik gazte zan Unamuno, baiña, ez ikasle gazte buru bero bat, ordurako irakasle, “maixu” zan “Doctor” esaten dana. Gaiñera, gaztetasunak emoten dauan beroketa bat “izan ba'zan” berak egindako azalpen zitala, euki ebazan urte luzeak euzkotar euzkaltzale onei egin euskun zauri minbera beste eginkizun obeago batzukaz sendatzeko, guk dakigunez beintzat, ez dau iñoz egin.

Letona jaunak, Unamuno'ren beste aipaldi batzuk ebazalduten dauskuzuz, adierazoten dabenez, gaztelerako idazle ospetsu orrei guk baiño geiago irakurria guk baiño geiago naita ainbat irakurriak garan, baiña, ori ta guzti be, ez dauskuzu idazle ori babestuteko beste esaten, bada,

noz baiten Bilbo beren jaioterria babestu ba'e ban, Espaiña'ko zati bat lez egin eban, euzko abertzaleon eginkizunak “aldeanadas” eta “jebadas” iraiñez esan da idatziaz.

Gaztelarra, espainarra banitzake, bear ba'da, Unamuno'gaz egongo nitzake ainbat zor dautselako jakintzarloan, baiña, euzkotar euzkaltzalea lez EZ DOT NAI UNAMUNO.

Azkenez Letona adizkide agurgarria, idatzi nai dozun guztia Unamuno babestuteko, baiña, mezedez, ez ni aipatu ez dautsut erantzungo-ta. Azketsi baiña onelakoa naz.

ALTUNA'TAR JOSU

### ORRIZ ORRI

Bizi izateak dakarrenez,  
(gau illuna izan naiz goiz gorri...)  
negar oñazez edo, zorionez,  
abestu une igeskerrari,  
aldiko goraberatasunez  
eroankor bezain itxarogarri.

Abestia laztangarri dogu  
maitasunaren adierazgarri,  
aizean ereindako eresi  
ederraren bizi-iturburu  
ta, lillurazko amets-ikutu  
ororen eragin aringarri.

Orriz orri, zauriz jausiarren  
aizeak daroazan orbel antzo,  
amor ez emon etsipenaren  
orban-ikutu itun-baltzari  
baizik biotza, ederrik jazo  
eta, abestu Udazkenari.

Udabarria udabarriarenez:  
lora, txori... goraldi betean  
izadia, gure begipean  
eta, Negua be, neguarenez,  
berakadazko egun motz, otzez  
lotaratua dakusgunean  
abestu gogoeta-ikuspenez.

MUNIAATEGI-TAR SABIN

## SASI MAIXUKERIAK

Palmi idazleak ZER 100'go orrialde batean "Aldaketak zergaitik?" izeneko idazlanean aitazten eban kontua argitu naian asten naz au idazten.

Lenengo, bere aurka ez natorrela esan nai dausat eta H'ren etsaien artekoa nazala. Ta geiago barik eldu deiodan gaiari.

"Dautzut", "dautzue" esan bearrean, "deutsut", "deutsue" ta abar idatzi bear dala esaten dabela oraingo bizkaiera batuaren aldekoak, diño berak. Eta jokera orren aurka dago. Aditza aztertzean, "A" izkia dala orain aldiko ezaugarria beti irakatsi dauskuela, eta "E" leen aldiko ezaugarria dala geitzen dau.

Bai, alan da; sintetikoetan argi dago ori. Orain aldian "dAukat", "dAkit", "nAator" ta abar esaten da.

Ta aditz alkartuan be ikusten da olako zerbait: "ekarri dAu", esaten da orain aldian eta "ekarri Eban" leen aldian.

Aditz alkartuko datiboa naikoa eratara esaten ba'da be (daust, deust, dost, desta, dust) Arana Goiri'k eta Azkue'k, leen ikusi dogun euskerearen jokera kontuan arturik kontixu, "A" gazkoak dirala legekoenak edo jatorrenak iruditu jaken eta aukeratu zituen; "dautzut" edo "dautsut", "daustazu", "daust" eta lagunak.

Olan, bakotxak bere eskola sortu eben maixu biak onetan batera etorri ziran eta gizaldi onetan ia danok olantxe idatzi dogu. Baiña gramatikalki "A" gaz idatzi bear dala dirudian arren, antxiñako idazleak geienak (nik irakurri dautsedan guztiak) "E" gaz idatzi eben: "deutsut", "deustazu", "deust" eta abar. Azkue'k berak be autortzen dau ori. Ara Morfologia Vasca'ko 703'garren orrialdean diñoana:

"Entre los antiguos raras son las flexiones con "au" que nos dejaron. "Ez dausku iñok deirik egin" = "no nos ha llamado nadie" (Astarloa, Urteco, I, p. XV-3). El mismo autor en la p. XV-15 dice, sin embargo, "eta ezteusku arei baño geiago emon" = "y no nos ha dado más que a aquellos".

Ara ondoren Arana Goiri ta Azkue baiño leenago-koak zelan idazten eben darabilgun kontua. Geiena, Mikel

Zarate'ren Bizkaiko Euskal Idazleak liburutik jasotakoa da.

Barrutiá Pedro, 1700-1761:

Txakolin orrek turbadu deutsu  
Begietako bistera?

Bastarretxea Agustin 1700-1761:

Esan ta egin emoten deuto  
Bere arpegi ederrean.

Mogel Juan Antonio 1745-1804: Autor deutsut, ardao zalechuba dala, buruba ta barruba berotu daruazala larregi ta ori eria dan guztian.

Añibarro Pedro Antonio 1745-1830: Eta alan, era batera ifinten deutsudaz emen eguneango Cristiñau-cereguiñac.

Astarloa Pedro 1751-1821: Zuk, ikusirik besteak egin dabena, eztozu gitxiago izan gura eta ateraten dozu beste bat eta emoten deutsazu trago bat.

Madariaga Bartolome 1768-1835: Ni esaten azartuten ez nasan ezaintasunac, alkarri egiten deutseezala.

Zabala Juan Mateo 1777-1840: Antxiñako ipuiñeko leoi zarrari legez, batak emoten deuto adarkadea, besteak ostikadea, besteak aginkadea.

Mogel Juan Jose 1781-1849: Parkatu daideela Bizkaiko Kura jaun askok, bada eurei ezarten deutset onetan erru andia.

Uriarte Jose Antonio 1812-1869:

Esnea, barriz, izango dot ugari;  
esango deusat otsein neskatilleari  
karutxo saldu dagiala  
ta gona barri bat egingo deutsadala.

Azkue Eusebio Maria 1813-1873:

Erruduna naiz eta negarrez  
nauke neure pekatuak;  
lotsaz gorritu deust arpegia  
tsingartu artean erruak.

Iturzaeta Andres 1838-1912: Ni ez nau minduten aitarren kastiguak, ezpada guk geure aitari emongo deutsalun atsekabeak.

Arrese Beitia Felipe 1841-1906:

Agur illun bat egin deuskue  
guraso zarren legiak;  
umezurtz batzuk gelditu gara,  
billosik foru bagiak.

Nik onezkero neure bizi guztian (50 urte baiño geiago idazten asi nintzala) idatzi izan dodan lez jarrituko dot kontu onetan, “daust” ta abar idazten. Gramatikalki olantxe izan bear litzakeala dirudi, ta maixu andi birek zabalduetako bidean jarraitzea ez da burubakokeria.

Baiña bestelan idazten dabenak, “deust” ta antzera idazten dabenak be ez dagoz errezoi barik.

Beste kontua, TZUren ordez TSU idaztea zegaitik dan jakiteko Azkue’k Morfologia Vasca’ko 561’garren zenbakian diñoana ona aldatzea izango da onena.

“Tsi. Este elemento, en la conjugación del auxiliar (1), pertenece exclusivamente al dialecto B, constituyendo uno de sus más típicos distintivos. Es de advertir que nunca se dice entero. A) Al chocar con vocales y con *z* de *zu* se dice *ts*, desapareciendo la *i* final, como sucede en otros campos de nuestra Morfología (*etorri-ten* = *ten*); *deu-tsi-e-zu* = *egingo deutsezu* = se lo habéis de hacer (Per. Ab. 80-3), *ezteutsut* (*de ez-deu-tsi-zu-t*) *minik emongo* = no os causaré dolor (Per. Ab., 76-23). También aquí la escuela de Arana Goiri se empeña en hacer decir al pueblo (y éste no se lo repite) *ezteutzut* con *z*.

Y no es sólo Moguel el que vale de *tsu* por la pretendida *tsu*, sino todos los escritores vizcainos que nos han pre-

cedido. Así Uriarte en *dirautsuet* os lo digo a vosotros (Apoc. b. II-23), Bartolomé en *baneutsuz* si yo os los hubiera (icas. II, 270-27), Añibarro en *banakutsu* vos me véis (Esku. 11-12), Zabala en *nakutsue* vosotros me véis (Fábula 12); y si acaso pudieran citarse algunos *baneutzu* y *deutzut* de Fr. Pedro Astarloa es porque este autor no distinguía, en lo que como durangués hablaba, entre *z* y *s*; y escribió con *z* *deutzazu*, *eztakuzt*, *lotzatuten da*, *deutzan*, *deutzee*... como puede verse, sólo en la página 10, tomo I de su *Urteco domeca*. El pueblo allí donde distingue *ts* y *tz* dice *neutsun*, *dirautsut*... etc... como dice *neutsan* y *dirautsat*.

KAMINAZPI

## GUDARIA

Zauri bat zan tontorrean luze-luze illik,  
mutu garrasia aitz adarretan zintzilik  
t’oyartzuna —biotz erdian zulo gorria—  
aizerik aize joian izuek igorria.

Lubakietan jausi zan gazte baten itza  
t’ikurrin urratuak bildu bere garaitza.  
Odolak —zabal zabalik ate biribilla—  
an joiazan egunsenti barri baten billa.

Gerora, ixilla ta itunen aantzia,  
etzipetu egin dogu geure kontzientzia  
koroietan gorde baitogu geure mitoa  
t’ereñotzekin estal koldarkeri etoa.

Beingo baten aztu da odolen lagorria  
t’oroitarrietan nagusi da untzorria.  
Ene gudari gaxo! Il uts bat aiz soil-soilik,  
gauek ostu baitueu aintza ixil-izilik.

A. BIDAGUREN



## CHRISTIE'ri ERANTZUNA

Kristo'gan maite zaitudan Christie:

Zure eskutitza garrantzizkoa izan da nitzat eta poztu egin naz teoloji-gaiari buruz arduratzen zarala ikusteagaz. Itun Barritik asi eta gizaldiak zear askori ardurea emon dautsen gaiak dira zu arduratzen zaituenak, eta eztabaida biziak be sortu dira gai orreitatik.

Ez uste izan zure zalantzak erantzun garbi-garbirik euki daikeenik. Jaungoikoa dagon gauzen gaietan ezin leike emon erantzun argi ta ziurrik. Itaun asko izaten dira guk zer erantzun aurkitu barik izten gaituenak, ezin geunke esan: Nik au argi ikusten dot". Orrelako erantzuna guzurrezkoa litzake gure erabagiagaz Jaungoikoa bera eskuratu egingo gendukelako. Orregaitik olako esakuntan besterik ezin leike egin azterpen batzuk baiño eta oneik be ez dauskue aurka edo alde dagoan erantzun ziurrik emongo, sarritan ez dogu jakingo bata ala bestea dan egia ala bien artean egi ori osotzen dan.

Zure arazoan ba, alde bateko ta besteko erantzunak aurkituko dozuz eta biak zelán lotu ikusi ez arren, iturburu non dagoan ikusi al izango dozu.

\* \* \*

Orregaitik, zentzundun norkien antzera eta kristiñau sinistedun lez olako zerbait esan bear dogu: Nire barruan aukeramena ta erantzukizuna aurkezten jataz eta ezin neinke erantzukizun ori alboratu, *Jaungoikoak salbamerako aukeratu*a nazela uste izanik. Ezin neinke olakorik esan nire biziaren unean egiten dirala nire erantzukizuna ta aukeramena argi ez dakidalako. Ori esaten izten ba' jat, neure eskuetan leporatzen dot arazoa eta eta nire bear-izan eta eginkizunai ezin neioe esan "orkonpon" barrutik eta kanpotik eurai menperatuta nagoalako.

\* \* \*

Orregaitik, beste bide bat artu bear dogu, ez lengoa lako bide bardiña. Neure nortasunetik datorren erantzukizunaz, Jainkoa ulergaitxa ta mugagabea dala argi dakigula. Bigarren bide onen baietza onelan adierazo leike: Bere neurribako jakintzan Jaungoikoak nire aukeramenaren kondaira beti ezagutzen dau eta beti dago nire aldikoa izateagaz Jaungoikoaren aurrean.

Ikusten dozun lez, ez diñot aurretiaz dagoala, Jaungoikoaren jakintzaz eta bere beti irauteagaz, bere "beti orain" orregaz gure aukeramena ez dalako alboratzen.

Nire aukeramena mugatua ta amaikorra da, nai ta ez neure erantzukizunari menperatuta dago eta menperatuta egiten jarraituko dau, ez bakarrik Jaungoikoaren Jakintza orregaitik, bere al-izate eragilleagaitik be bai.

Nire aukeramena almen orretatik sortzen da, nai onean nai txarrean beiezko bidea dagoalako, orrelan Jaungoikoaren indar egillea izan daiten agertzen dana.

Baiña orregaitik ez da uste izan bear aurretiaz aukeratuta gagozela, gure aukeramena kendu egiten jakula edo indarkeriz eta beartuta baztertu egiten dala aukeramen ori.

Gure izatean eta egitean dagoan baiiezko guztia Jaungoikoarena da eta guk onartu egin bear dogu geure izatean eta aukeramean eta Berari eskerrak emon bere grazia Jaungoikoagandik datorrelako; eta egite orrek neure berrizko izatasuna ta neure egizko aukeramena ez dauzala ezereztuten, oiñarritu-baiño.

\* \* \*

Jaungoikoa ta nire izatasuna ez dira alkarren aurkako alkarren naikide baiño eta euren artean zelán edo alan banandu ta eurakandu leiteke eta bear da izaten dan guztia.

Dana dator Beragandik baiña Beragandik datorrenak gorengo maillan dauko Jaungoikoaren askatasuna ta maistasunaren ontasuna izateko almena.

Esakun oneik irakurrita, esango dozu: "Ez dot ikusten zelán alkartuko dodan guzti ori".

Ori baiño ez ba'da, esango dautzut zintzoro: Neuk be ezin dot ulertu zelán alkartu leiteken guzti ori argiro ta baikortasunaz. Kristiñau zentzundun batek orregitiño, ezin leike, ez dau bear be, ikusi guzti orretan alkarkizun argirik.

Esandako guzti orrek eskatzen dauanez apaltasunaz eta moltzo aundi baten itzi bear dodaz gai asko eta Jaungoiko ulertueziñari omen agurgari ta begirunetsu bat egin.

\* \* \*

Alde batetik esan lei kristiñauak bakarrik lortuten dauala Jaungoikoa dan lakoa iztea, bera toki mugatu batera sartzeko gogoia artu barik.

Nik askatasuna oartzen dodan neurrian eta neure erantzukizuna ezin alboratu dodan bestean, sinisten eta

## GAZTEAK

onartzen dot Jaungoikoaren ulertu-eziña ta neure izatearena. Neurri orretan naikoa arrazoirik daukat esandako baiezen bakoitxari eutsiteko.

Aldi berean, ikusten dot ez litzakela bidezko gauzea izango olako baiezen bat onartu ez eta besteagaz alkar-tzen dan baietza ez dodala ulertzen esan. Baiña nik ez daukat eskubiderik baieztapen orreikaz noren jabe nazan betiko araudi bat egiteko.

\* \* \*

Nire ustez, folosofu ta teologu kristiñauak sarritan ibilli dira mugak igaro eta jakin al leiken baño geiago jakin-gurean arlo onetan.

Olako eskutiz labur baten ezin do daz agertu ta adierazi nik ikusi dodazan mugarriak. Zuretzat gogaikarri litzake eta zure erlejiño-bizitzan be ikuturik ez daukan gauzea litzake ori. Alan be, zoragarri dala uste dot Jaungoikoaren eta munduaren izatasuna ulergaitxagoa ta sakonagoa, guk uste dogun baiño sakonagoa, dala ikustea.

Auxe sartu dagigun buruan: Jaungoikoaren ulertu-eziña amaitu egingo dala, ulermenez bakarrik bera geuganatzan ez ba'gabiltz. Maitasunaren bidez lortuko dogu ori obeto. Gai onetan iñon baiño geiago jazoten dana da ori. Batek besteagan ulertzen dana baiño maite ez ba'dau, norberak daukazan eta egin dauzan gurari ta elburuak arek daukazanen bardiñan izan bear ba'dabe, ez leuke eukiko ezelako maitasunik. Bera dan lakoa ta Beragaitik maitatu bear dogu. Orrelan bakarrik, onelako maitasunaz lortuko dogu bestea, urko laguna, bere benetako izatean aurkitzea. Ori orrelan izanik, olako zerbait jazoten ete dan

Jaungoikoagaz uste izan bear dogu, orrelan ete dogun ulertu-eziña.

\* \* \*

Eta orain bear ba'da bururatuko jatzu nik burubide ori ezarri bear neuskiela salbamen eta ondamen giroko edesti-arazo guztiai. Esaterako zer esan bear ete neuke Jesus'en erriari buruz? Oneik be euren aukeramen eta erantzukizun erruduna euki arren, salbamenaren elburuetan sartuko ebazan Jaungoikoak, beraren aurrean errudunak izanik be. Egi-egia da Jaungoikoaren billa dabilzanetzat Bera maitatzeko Jaunak giza-aukeramenaren kalte egitetik, salbamina ta grazia atera eta sortu leikezela.

Egia da, baita, Bera, Jaungoikoa aurkitu ta maite dabenetzat, giza-aukeramenak egiten dauan kaltetik salbamina ta grazia lortu daitekezala, Jaungoikoaren eragiñak bultz eginda. Orixe da Paulo'k diñoana Erroma'tarrai egindako idazkian: Ortik ezin atera leikela gizonak eskubiderik, Jainkoak bakarrik besteen salbamenerako erabilten dauan kalte ori aukeramenaz egiteko.

Zeure aukeramenean oartu ta somau zeinke zeure burua, ez bakarrik norki bat lez, Jaungoikoak aupaka egiña zarala, bere aukeramina oartu ta ikusteko baita notin bat lez uste ona ta itxaropena bide dirala, bere burua eskintzen dautzulako, daukan guztia ta bere aukeramina berbera Jaungoikoaren maitasunari eskintzeko, gauzea zeatz ulertzekoa izan ez arren.

KARL RAHNER'ek  
(Letona'k euskeratua)



## **EUSKERA ABERASTU**

### **EGON = ESTAR**

Erderazko aditzak: estar, consistir, corresponder, apear, convenir, estar conforme, depender... euskeraz EGON aditzaz oso egoki eta polito esan daitezke.

Adibide oneik Muxika-ren iztegitik artuta dagoz.

Zoriona on egitean dago = la felicidad consiste en...  
 Ontasuna ez dago andi-txikian = la bondad no consiste en...  
 Ori egitea ez dago nigan = ...no depende de mí.  
 Etxe onetan dago zure laguna = Tu amigo reside en esta casa.  
 Zuri nago = A ti me dirijo, hablo contigo.  
 Asmo orretan dago = Persevera en ese deseo.  
 Janda nago = ya he comido.  
 Ikusita nago = ya lo he visto.  
 Zuzen dago = Tiene razón. Está en lo cierto.  
 Oker dago = Está equivocado. No tiene razón.  
 Zure asmoarekin ez dago = No está conforme con...  
 Egiteko asko dago = Falta mucho por hacer.

Ezetzean dago = Continúa en la negativa.  
 Ezetzera dago = Se inclina más bien a la negativa.  
 Bustiko nazalakoan nago = Creo que me mojaré.  
 Bustiko ete nazan nago = Creo que me mojaré.  
 Berean dago = Continúa en sus trece.  
 Errira etortera dago = Piensa venir al pueblo.  
 Egitera dago = Está inclinado a efectuarlo.  
 Eurira dago = Está a punto de llover.  
 Garia zenbatean dago? = ¿A qué precio se vende el trigo?  
 Joaterik ez dago = No se puede ir. No es posible el ir.  
 Egonez an dago = En realidad reside allí.  
 Ostatur egon = hospedarse.  
 Besta aldetik erderazko "estar" aditza era askotara euskeratu daiteke. Aldi bakotxean aurretik zer esan gura dogun ikusi bear geunke.  
 Estoy curando = sendaketan diardut. Sendaketan ari naiz.  
 ¿Qué estás haciendo? = Zertan diarduzu? Zer egiten ari zara?  
 Estoy andando = Ibili nabil.  
 Estoy trayendo = Ekarri dakart.  
 He estado en casa = Etxean izan naz. Etxean egon naz.

GOIKOETXEA INAKI

## **IPUIN-SARIKETA**

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-rea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmaurikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi 14.2.<sup>a</sup>, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

- Sariak lau izango dira:

- 1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta
- 2.<sup>a</sup> 30.000 pezeta
- 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta
- 4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta

- Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK


# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**